



ADINGABE ARAU-HAUSLEEN ERANTZUNKIZUN PENALARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Datak: AUTOMATRIKULA: Argitaratu denetik **maiatzaren 11ra (23:59ak)**.
Hurrengo estekaren bitartez egingo da:

- [Adingabe arau-hausleen erantz. penala online izen ematea](#)

modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

IKASTAROA: 2025eko maiatzaren 20tik (14:00ak) ekainaren 12ra (09:00ak)

AZTERKETA: Ekainaren 17tik (14:00) 24ra (09:00), online.

BAJEN JAKINARAZPENAK:

Matrikulatuta badaude ere ikastaroa egin ezin duten ikasleek horren berri eman behar dute **maiatzaren 19a** baino lehen, matrikula ezeztatu ahal izateko JAZek kostu gehiagorik izan gabe. Ikastaroa data horren ondoren utziz gero, urtebeteko epean egiten den edozer prestakuntza-eskera ezeztatu daiteke.

Iraupena: 20 ordu

Hartzaileak: Justiziako karrerako eta bitarteko funtzionarioak, onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda argitaratzen duen Ebazpenaren datan aktiboan daudenak. 300 plaza. **Ez du lan-poltsetarako balio.**

Egitaraua:

- Adingabeen prozesu penala
- Adingabeen erantzukizun penala arautzea
- Adingabeen prozesu penalaren printzipio informatzaileak
- Adingabeei ezar dakizkiekeen neurriak
- 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremua
- Erreforma-espedientea hastea

Ziurtagiria: Ikastaroa bukatuta Justizia Administrazioako Zuzendaritzak “Nire karpetan” eskegiko du diploma.